

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

IRAKASLEEN ZUZENDARITZA

IRAKASLEEN GIDA

AURKIBIDEA

HITZAURREA	5
1. UPV/EHUko IRAKASLEEN IRAKATS BETEBEHARRAK	7
1.1. Irakaskuntzaren plangintza.	7
1.2. Ikasleen ebaluazioa	9
1.3. Kredituak aitortzea irakats betebeharreatatik	14
1.3.a) Kredituak hirugarren zikloko irakats betebeharreatatik. ...	14
1.3.b) Kredituak ikasketa birtualeko irakats betebeharreatatik ...	15
1.3.c) Kredituak aukera askeko irakasgai bereziengatik	16
1.3.d) Kredituak practicum, gidaritzepeko praktika, egonaldi eta karrera amaierako proiektuengatik	16
1.4. Hirugarren zikloko programak eta aukera askeko irakasgaiak	17
1.5. Irakasleen liberazioak kargu akademikoengatik	18
2. LAN BALDINTZAK ARAUTZEKO HITZARMENA	21
2.1. Lan-egunak	21
2.2. Egutegia eta oporrak	25
2.3. Indemnizazioak campus arteko joan-etorriengatik	27
3. BAIMENAK, LIZENTZIAK ETA BAJAK	29
3.1. Baimenak eta lizentziak	29
3.2. Bajak	31

4. BATERAEZINTASUNAK	37
5. ZERBITZUEN IKUSKARITZA	41
5.1. Ikuskapenak, diziþlina espedienteak eta zehapenak	41
5.2. Zerbitzuen ikuskaritza eratzea	43
5.3. Irakasleen zuzendari plaza sortzea	44
5.4. Ikuskaritza Zerbitzuko kideen jarduerari buruzko zirkularra	47

HITZAURREA

Irakaslearen Gida honen helburua da agiri bakarrean batzea irakasleek beren eginkizunak betetzeko dituzten oinarritzko araudiak. Bertan ez daude jasota irakasleen betebeharrak eta eskubide guztiak, ezpada zalantzarik ohikoak (ordutegia, tutoretzak, lizentziak, oporrak, irakaskuntzaren plagintza, bateraezintasunak...) argitzeko oinarritzkoenak. Hauen bidez zenbait zalantza batzuk argitu ahal izango dituzte, askotan, zalantza horiek araudia ez jakitearen ondorio izanten dira eta.

Bestalde, Ikuskaritza Zerbitzua eta irakasleen zuzendari kargua ere aipatuko ditugu, bai eta horien eginkizunak eta jarduteko modua ere.

Gida hau egiteko erabili ditugun araudi, lege eta zirkularrak osorik edo osatuak nahi izanez gero, jo Irakasleen Zuzendaritzara.

Araudiak honakoak dira:


1. *Irakaskuntzaren plangintza eta ikasleen ebaluaziorako arautegia (Gobernu Batzarrak 02-02-27ko bileran onartua eta 02-07-15ean argitaratua EHAAAn).*
2. *Erabakia, 2001-10-02koa, Ikasketa birtualak edo esperientzia geletako ikasketak ematen dituzten irakasleen irakats betebeharrari buruzkoa.*
3. *Erabakia, 2000-11-20koa, aukera askeko irakasgai bereziak ikasgelako eskola orduekin baliozkotzeari buruzkoa.*
4. *Gobernu Batzarraren erabakia, 2001-02-22koa, practicum eta nabitatez kanpoko kliniketan egin beharreko praktikengatik eman daitekeen irakats betebeharrari buruzkoa.*
5. *Irakasleen Gestiorako Ibiltorria - 2002 (Gobernu Batzarrak 2001-10-23an onartua).*
6. *UPV/EHUko Estatutuak.*

7. *Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan baldintzak arautzeko bitzarmena* (96-11-12ko EHAA)..
8. *Erabakia, 2001eko azaroaren 5ekoa, UPV/EHUko Mahai Sektorialarena, enplegua sortzeari eta langileak promozionatu eta egonkor egiteari buruzkoa..*
9. *Zerbitzu ordainei buruzko zirkularra. 2002/2003 ikasturtea.*
10. *575/1997 ED, Gizarte Segurantzari buruzkoa (1117/98-k aldarazia).*
11. *598/1985 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, estatuko administrazioa, gizarte segurantzako eta menpeko erakunde eta enpresetako langileen bateraezintasunei buruzkoa.*
12. *Unibertsitatei buruzko 6/2001 Lege Organikoa (ULO)*
13. *53/1984 Legea, abenduaren 26koa, administrazio publikoetako zerbitzuetako langileen bateraezintasunei buruzkoa.*
14. *Apirileko 898/85 ED, unibertsitateko irakasleen araubide juridikoari buruzkoa (1985eko ekaineko EBO; 146. zk.).*
15. *Erabakia, 99ko otsailaren 4koa, UPV/EHUko errektorearena, zerbitzuen ikuskaritza sortzeko dena.*
16. *Gobernu Batzarraren erabakia, 2001eko otsailaren 22koa, irakasleen arte-tik irakasleen zuzendari kargua sortzeko.*
17. *Zirkularra, 2001eko abenduaren 3koa, Ikuskaritza Zerbitzuko kideek jarraitu beharreko irizpideei buruzkoa.*
18. *Irakats eskaintzarako prozedura bateratua. 02/03 ikasturtea.*

1. IRAKASLEEN IRAKATS BETEBEHARRAK

1.1. Irakaskuntzaren plangintza

- Irakats lana honela banatuta dago:



- Asteko ordutegiaren barruan teoria orduak, praktiketakoak eta tutoretzakoak sartuko dira.
- Eskola orduen ordutegia ikastegi bakoitzean argitaratu behar da eta bertan zehaztuta agertu behar dira irakasgai bakoitza emango duten irakasleen izenak.
- **Akademi ikasturte bakoitzeko matrikula-epea ireki aurretik**, ikastegiek bertan irakasten diren irakasgaiei buruzko oinarritzko informazioa (helburuak, programa, oinarritzko bibliografia, irakasle arduraduna, ebaluaziorako sistema eta azterketen aldia) ipiniko dute bertako ikasleen eskura. Beraz, ikastegiko irakasleek garaiz eta behar bezala eman beharko diote informazio hori guztia ikastegiko idazkaritzari.
- Tutoretzarako ordutegiak lauhileko lehenengo 15 egunetan argitaratuko dira.
- Tutoretzak urte osoan egingo dira, ez bakarrik eskolaldian.
- Tutoretzako ordutegiak aldatu ahal izateko, ikastegiko zuzendaritzaren edo dekanotzaren baimena beharko da eta, gutxien dela, 3 eskola-egun lehenago jakinarazi beharko dira.

ERABAKIA, 2002ko MAIATZAREN 28koa, AKADEMI ANTOLAKUNTZAKO
ERREKTOREORDEARENA, LEHENENGO ETA BIGARREN ZIKLOKO
IKASKETEN GESTIORAKO ARAUDIA ARGITARATZEKO DENA.

2002/2003 IKASTURTEA

(Gobernu Batzarrak 2002ko otsailaren 27an onartua)

(02-07-15ean argitaratua EHAAAn)

V. KAPITULUA. IRAKASKUNTZAREN PLANGINTZA
ETA IKASLEEN EBALUAZIORAKO ARAUDIA

42. artikulua. 1. Eskola-ikasturtea, eskola teoriko eta eskola praktikoen aste-ordute-giaren arabera burutuko da eta berau ikastegi bakoitzean publiko egingo da eskola-epea hasi aurretik. Eskola praktikoen programazio zehatza aurrekotasunez jartzea ezinezkoa balitz, gu-txienez, hauen inguruko aurreikuspen nagusiak ezarriko dira.

2. Akademi ikasturte bakoitzeko matrikula-epea ireki aurretik, titulazioetan irakasten diren irakasgaietarako buruz sailek onartu duten informazioa ipiniko dute bertako ikasleen eskura:

- Helburuak, programa eta oinarritzko bibliografia.*
- Taldeen eskola praktikoa eta teorikoetarako hasieran aurreikusitako irakaslegoa.*
- Irakasle arduraduna.*
- Balioespen-sistema.*
- Azterketen aldia.*
- Bestelako irakaskuntza jarduerak.*

Irakasgai berean talde bat baino gehiago denean, oinarritzko ikasgai-zerrenda bera izan-go da talde hauentzat guztientzat, irakasgaiaren irakasle arduradunek, hala beharko balitz, adostasun erabakiaren bidez. Adostasunik lortzen ez bada, saileko kontseiluak, irakasle guz-tiak entzun ondoren, erabaki arrazoitua hartuko du, guztiek eman beharreko gaiei buruzkoa, bai eta salbuespenei buruzkoa ere.

Hauek gain, interesgarritzat har daitezkeen guztiak ere gehituko dira. Helburu boneta-rako, ikastegiak beharrezkoa den informazioa eskatuko die sailei behar besteko aurrekotasunaz, informazio hau ikastegiaren eskuetan matrikula-epea hasi baino bi aste lehenago egongo delarik.

3. *Eskola teoriko eta praktikoen ordutegian, berauek emango dituzten irakasleen izenak agertuko dira.*

43. artikulua. 2. *Ikastegiko dekanotza edo zuzendaritzak hurrengo akademi ikasturterako irakaskuntza-antolaketa jakinaraziko die ukituei. Sailek, beren aldetik, ikastegi bakoitzean eskolak ematen dituzten irakasle guztien irakaskuntza-zereginen esleipen behin betikoa jakinaraziko dio ikastegi bakoitzari, tutorego-ordutegiak ere barne. Informazio guzti hau publiko egingen da lauhilabete bakoitzeko lehenengo 15 egunetan zehar ikastegiko iragarki-taulan eta bertan egongo da lauhilabete osoan zehar. Tutorego-ekitaldien ordutegiak aldatu ahal izateko, ikastegiko zuzendaritzaren edo dekanotzaren baimena beharko da eta, gutxienez, 3 eskola-egun lehenago jakinarazi beharko dira.*

1.2. Irakasleen Ebaluazioa

- Irakasgai bakoitzaren ebaluazio-era ikasturtearen hasieratik jakin behar dute irakasleek.
- Ebaluazioa azterketen edo lanen bidez egin daiteke, baina, edozelan ere, gaiak ezin izango dira izan eskoletan landu gabekoak, nahiz eta programan jasota agertu.
- Azterketak ahozkoak zein idatzizkoak izango dira.
- Azterketen egutegia ikastegiko batzarrak onartuko du zuzendaritzak edo dekanotzak egindako proposamenari jarraituz. Egutegi hau, ordutegi eta guzti, azterketak hasi baino, gutxienez, hilabete bat lehenago argitaratu beharko da iragarki oholetan.
- Zatikako azterketen eta bukaerako azterketen kalifikazioak, azterketa egin eta ondoko 20 lanegunen epearen barruan argitaratuko dira.
- Bosgarren, seigarren eta salbuespenezko deialdietako epaimahaiak ikastegi batzarrak izendatuko ditu akademi ikasturte bakoitzeko lehenengo hiruhilabetea, sailak entzun eta gero. Hauek saileko hiru irakasle osatuko dituzte, bereziki irakasgaiari dagokion jakintza-arlokoak.
- Azterketa egin ondoren, irakasleak emaitzak jakinaraziko ditu, bai eta ariketa praktikoa eta problemen emaitzak eta ebazpen-metodoak ere.
- Azterketak gorde egin behar dira ikastegiko batzarrak zehaztutako denboran.

V. KAPITULUA. IRAKASKUNTZAREN PLANGINTZA ETA IKASLEEN EBALUAZIORAKO ARAUDIA

46. artikulua. 1. *Ikasleek berdintasun eta justizi bermetasunez epaituak izateko eskubidea dute, bai eta emaniko irakaskuntzaren mailan ere.*

2. *Irakasgai bakoitzaren ebaluazio-era ikasturtearen hasieratik jakinarazi behar da. Berdintasuna bermatzeko, sailek ebaluazio-sistema uniformeak ezartzeko joera izango dute irakasgai bakoitzeko talde ezberdin guztietarako. Horrela, bada, irakasleek ebaluaziorako proba eta irizpideak bateratu beharko dituzte, sailak oinarritzko baldintzetatik at utzi dituen alderdi eta gaietan. Adostasunik ez balego, saileko kontseiluak, arrazoiak azalduz eta ukituriko irakasle guztiak entzun ondoren, hartu beharko du erabakia.*

3. *Irakasgai baten ebaluazioa azterketen bidez, ebaluaketa jarraituaren edo lanen bidez burutu ahal izango da. Edozein kasutan, ikasleak azken proba egiteko eskubideaz baliatu ahal izango dira.*

4. *Irakasgaien ebaluazio eta kontrolerako prozedurek, bai eta hauen programak eta irakaskuntza-helburuek, aldaketa izan ahal izango dute saileko kontseiluak iritziriko arrazoi larri justifikatuarengatik. Irakasgaiaren balioespena ezin izango da egin kasuan kasuko irakasleek aztertu ez dituzten gaien inguruan, nahiz eta gaiok ikasturte-hasieran irakasgaiaren programan agertu.*

5. *Edozein azterketa egiterakoan, ikasleari identifikazioa eskatu ahal izango zaio.*

47. artikulua. 1. *Azterketak ahozkoak zein idatzizkoak izango dira. Lehenengo kasuan publikoak izango dira eta ikasleak azterketa grabatzea eskatzeko eskubidea izango du.*

2. *Irakasgaiak era zehatz eta jarraituaz balioesteko helburuaz, zatikako azterketak egin ahal izango dira, irakasgai bakoitzerako ikasturte horretarako ezarritako baldintzetan.*

3. *Ariketaren batean iruzurrik egingo balitz, "gutxiegi" kalifikazioa eraginen luke, kasuan kasu legokiokkeen erantzukizunez gain.*

48. artikulua. 1. *Zatikako azterketen kalifikazioa publiko egingo du irakasgaiaren arduradunak azterketa egin eta 20 lanegunen epean eta, beti ere, irakasgai bereko hurrengo azterketa egin baino, gutxien-gutxienik 7 egun lehenago. Azterketa finalen kalifikazioa, azterketa egin eta ondoko 20 lanegunen epearen barruan argitaratu beharko ditu irakasgaiaren arduradunak. Kasu bi hauetan, argi agertu beharko da argitaratzeko data, kalifikazioak berrikus- teko eskariak egin ahal izateko epea behar bezala zenbatu dadin.*

2. *Irakasgaiaren aktetan ikasleak lorturiko kalifikazio guztiak agertuko dira. Akta hauek, behar bezala beterik, ikastegiko zuzendaritzara igorriko dira eta, ikastegiko idazkariak irakaslearen sinadura egiaztatu eta berehala, publiko egingo. Hauetan a posteriori soma litezkeen errakuntzak, aktaren oinaldean gehituko diren diligentzien bidez zuzenduko dira.*

3. *Ikasle guztiek, hala eskatzen badute, lorturiko kalifikazioen dohaineko ziurtagiria jaso ahal izango dute.*

4. *Bederatzigarren artikuluan aurreikusitakoari kalterik egiteke, 1. eta 4. bitarteko deialdietan, irakasgai berean zenbait talde irakasle arduradun ezberdinen esku denean, irakasleok kalifikazio-sistema baterakoa ezarri ahal izango dute. Kasuotan, aktak irakasleek zein bere talde edo taldeei dagozkien sinatuko dituzte.*

5. *Aurreko pasartearen aurreikusitakoa aurreikusi arren eta kasu bertsuetarako, ikastegiko arategiek 1. eta 4. bitarteko deialdietan balioespen bateratuak egiteko epaimahaiak (hiru irakasle edo irakasgaiaren ardura duten irakasle arduradun guztiez osatuak) ezarri ahal izango dituzte. Epaimahai hauek betebeharrak izango dituzte:*

a. *Epaimahaiak irakasgai bereko talde ezberdinen irakasle arduradunek osatuko dituzte. Taldeen irakasle arduradunak epaimahai osatzeko behar diren kideak baino gutxiago direnean, epaimahaiak ikastegian jakintza arloan irakaskuntza-kategoria altueneko irakasleekin, eta, horien artean, antzinasun handieneko irakasleekin osatuko da.*

b. *Epaimahai bakoitzean talde bakoitzeko irakasle arduradunak nahitaez egon behar du berari dagokion taldeko ikasleei kalifikazioa emateko.*

c. *Irakasgaiaren irakasleak, guztira, epaimahaiak osatzeko behar diren kideak baino gehiago direnean, epaimahaiaren kideak taldeko irakasle arduradunaz gain, ikastegiko irakaskuntza-kategoria altueneko irakasleak eta, horien artean antzinasun handieneko irakasleak izango dira.*

d. *Epaimahai hauen buru, bertan edo, behar denean, administrazioan den kategoria eta antzinasun handieneko irakasle arduraduna izango da Epaimahaiak nortzuk osatzen duten ikasturte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan jarriko da jendaurrean.*

Kasu hauetan, bai sailen iragarki-tauletan argitaratutako kalifikazioak bai aktak talde edo taldeen irakasle arduradunak eta epaimahai kalifikatzaileen buruak sinatuko dituzte.

49. artikulua. *Bosgarren eta seigarren deialdietako epaimahaiak Ikastegi Batzarrak izendatuko ditu akademi ikasturte bakoitzeko lehenengo hiruhilekotan, sailak entzun eta gero. Hauek saileko hiru irakasleek osatuko dituzte, bereziki irakasgaiari dagokion jakintza-arlokoak*

eta kontuan izanda irakasgaia zein bizkuntzatan ematen den; eginiko probaz gain, ikaslearen akademi historiala eta egoera hartuko dituzte kontutan.

50. artikulua. 1. *Sailak, gutxien dela, hiru irakaslek eta ikasle batek, bai eta legozkioken ordezkoez ere, osaturiko batzorde bat izendatu beharko du jakintza-arlo bakoitzean, azterketa finalen berrikuspen eta zuzenketei buruzko kexak aztertzeke. Aipatu batzorde honen buruak irakasle numerario izan beharko du. Ikaslea Ikasleen Kontseiluak izendatuko du. Kalifikazioa aldatu behar izanez gero, aldaketa batzordeko irakasleek egingo du, bai bozketa bidez bai batez besteko nota kalkulaturik.*

2. *Honako prozedura hau beteko da:*

a) *Kalifikazioa argitaratzean, azterketak berrikusteko tokia, eguna eta ordua zehaztu beharko da; berrikuspenerako epea, bestalde, gehienez ere 8 lanegunekoa izango da. Ikasleak berrikuspenera egiten denean bertan egoteko eskubidea izango du. Berrikuspenera amaiturik, irakasleak akta ofizialak sinatuko ditu eta ikastegiak, gehien delarik, kalifikazioak berrikusteko epea amaitu eta 3 eguneko epearen barruan argitaratu beharko ditu.*

b) *Ikaslea ados geratzen ez bada, kexa idatzia aurkeztu ahal izango dio saileko zuzendariari bost lanegunen epean, aktak argitaratu zireneko egunetik hasita.*

c) *Honetarako izendaturiko batzordeak aurkezturiko kexa aztertuko du eta, irakasgaiaren irakasle arduraduna entzun ondoren eta egoki leritzekean ekintzak egin ondoren, ukituriko ikasleari audientzia eman eta gero, txosten arrazonatua egingo du eta kexa aurkeztu eta ondoko zortzi lanegunen gehienezko epean ebatziko du, ikasleari eta irakasgaiaren irakasle arduradunari eta ikastegiko idazkaritzari jakinaraziz, jakinaren gainean egon daitezen eta behar diren ondorioetarako eta, hala behar izanez gero, dagokion akta ikastegiko idazkariaren diligenziaren bidez aldatuko delarik.*

d) *Ikasleak azterketa berriro egiteko eskubidea izango du honakoetan:*

d.1) *Azterketa osoa edo atal bat programan ez ziren gaien inguruan izan bada edo, programan agertu arren, irakasleek behar bezala azaldu gabea izan bada.*

d.2) *Arrazoi oso bereziak, egora fisiko edo bestelakoak direla-eta azterketa ezin izan badu egin.*

d.3) *Irakasleak venia docendirik ez badu.*

d.4) *Azterketa egin aurretik ezagutzen ez zen ebaluazio-sistema erabili badu irakasleak.*

e) *Ikaslea ados geratzen ez bada, kexa idatzia aurkeztu ahal izango dio ikastegiko dekanor edo zuzendariari bost lanegunen epean.*

f) *Ikastegi Batzarraren batzorde ordezkatuak, hamar egunen gebienezko epean eta behar diren txostenak eskatu ondoren, kasua aztertuko du eta txosten arrazonatua egingo, ikasleari eta saileko zuzendariari igorriko zaiona eta azken honek irakasgaiaren irakasle arduradunari eta ikastegiko idazkariari belaraziko diona, jakin dezaten eta behar diren ondorioetarako eta hala behar izanez gero, dagokion akta ikastegiko idazkariaren diligentziaren bidez aldatuko delarik.*

g) *Ikasleak, hilabete baten epean, gorako administrazio-belegitea tartekatatu ahal izango du Errektorearen aurrean. Honek, sailean hartarako osaturiko batzordearen eta Ikastegi Batzarraren txostenak ikusirik eta beharko liratekeen abolkuak jasorik, ebazpena egingo du, honela administrazio-bideari amaiera emanik.*

51. artikulua. 1. *Deialdi ofizial bakoitzeko azterketen egutegia ikastegiko batzarrak onartuko du; proposamena zuzendaritzak edo dekanotzak egingo du, sailak eta ikastegiko ikasleen kontseilua entzun ondoren, Gobernu Batzarrak ikasturte bakoitzerako orokorki ezarritako mugen barruan. Egutegi honetan, azterketa bakoitza egiteko data, ordua eta ikasgela ageriko dira, eta egutegi hau azterketak hasi baino, gutxienez, hilabete bat lehenago argitaratu behar da.*

Azterketen datak egiaztatutako arrazoiren bat dela-eta aldatzeko proposamena sailak egingo du eta dekanook/zuzendariak onartuko du Ikasleen Kontseilua entzun ondoren. Aldaketak berehala argitaratuko dira ikastegiko iragarki obolean, beti ere, gutxien dela, aldatutako azterketa egin baino 15 egun lehenago.

2. *Hala eskatuko lukeen ikasleak, azterketara joan delako ziurtagiria jasoko du.*

3. *Irakasgaiaren bat errepikatzen duten ikasleen kasuan, azterketen datak batera gertatuz gero, maila goreneko irakasleak izango dira data berria ezarriko dutenak.*

52. artikulua. 1. *Praktiken oroitidazkiak eta lanak emateko data ikasleekin adostuko da eta aurrekoak proposatzerakoan zehaztuko.*

2. *Praktiken oroitidazkiak eta lanak ikasle sinatzaileei bihurtuko zaizkie, beren eska-riagatik eta kalifikatu eta ondoko bi hilabeteetan. Hauen argitarapen edo birsortze osoak zein zatikakoak edo hauek beste edozein helburutarako erabiltzeak egile edo egileen baimen espresa eskatuko du.*

3. *Ikastegi bakoitzak karrera-amaierako proiektu edo ariketak egiteko indarrean daukan arautegia ikastegiko iragarki-taulan erakutsiko da.*

53. artikulua. *Azterketa egin ondoren, saileko irakasleek ariketa praktiko eta proble-
men emaitzak eta ebazpen-metodoak jakinaraziko ditu, ikasleek eginiko probetatik ahalik eta etekin handiena atera dezaten.*

54. artikulua. 1. Irakaskuntzen egitura, garapen edo ebaluazioaren inguruan gerta litezkeen salaketak zuzendari edo dekanoen aurrean formulatuko dira eta hauek organo eskudunei bideratuko dizkiete, hartu beharko liratekeen neurriak har daitezten.

2. Zuzendari edo dekanok eta ikastegiko batzarraren erabakien aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio errektoreari eta horrek agortu egingo du administrazio bidea.

55. artikulua. Edozein kasutan, ebaluazio probak gorde egin beharko dira, gutxienez, kalifikazioak behin betikoak ez diren artean. Ikastegiak ezarriko du proba horiek gordetzeko erregimena.

56. artikulua. Abuztua baliorik gabea izango da epeen zenbaketarako.

1.3. Kredituak aitortzea irakats-betebeharrengatik

- Irakasleek eskubidea izango dute irakats betebeharretako kredituak aitortzeko honako eskolak emateagatik: 3. ziklokoak, doktoregoak, ikasketa birtualak, aukera askeko irakasgai “bereziak” edo praktikum, praktika gidatuak, egonaldiak edo karrera amaierako proiektuen arduradun izateagatik.

1.3.a) Kredituak hirugarren zikloko irakats betebeharrengatik

- Doktorego ikastaroetako kreditu bakoitzagatik, irakats betebeharretako kreditu bi aitortuko zaizkie.
- Ikerlanetako sei kreditugatik irakats betebeharretako kreditu bat aitortuko zaie. Gehienez ere, hiru kreditu aitortu ahal izango zaizkie kontzeptu honengatik.
- Irakasle bati 3. zikloko lan guztiagatik gehienez ere zazpi kreditu aitortuko zaizkio.
- Hirugarren zikloko lanagatik irakasleei aitortu beharreko irakats betebeharretako kredituak, ikerlanen kasuan, bi ikasturte osatzerakoan aitortuko zaizkie; doktorego ikastaroen kasuan, berriz, ikasturte bat osatzerakoan.

ERABAKIA, 2000ko AZAROAREN 20koa, IRAKASLEEN
ERREKTOREIRDEARENA, 3. ZIKLOKO LANAGATIK IRAKASLEEI
IRAKATS BETEBEHARRETAKO ZENBAT KREDITU ETA ZELAN AITORTU
BEHAR ZAIZKIEN FINKATZEN DUENA

1. *Irakasleek eskubidea izango dute 3. zikloko lanagatik irakats-betebegarretako kredituak aitortzeko dakizkien, honako kontzeptuok aintzat izanik:*

- *Irakasleak zenbat kreditu ematen dituen doktorego ikastaroetan.*
- *Irakasleak zenbat kreditu betetzen dituen ikerketen zuzendari.*

2. *Hona hemen irakats-betebegarretako zenbat kreditu aitortu zaizkien irakasleei kontzeptu horiengatik:*

- *Doktorego ikastaroetako kreditu bakoitzagatik, irakats-betebegarretako kreditu bi aitortuko zaizkie.*
- *Ikerlanetako sei kreditugatik irakats-betebegarretako kreditu bat aitortuko zaie. Gehienez ere, hiru kreditu aitortu ahal izango zaizkie kontzeptu honengatik.*

3. *Albo batera utzita zenbat kreditu ematen dituen doktorego ikastarotan eta zenbat kreditu betetzen dituen ikerlanak zuzentzen, irakasle bati 3. zikloko lan guztiagatik gehienez ere zazpi kreditu aitortuko zaizkio*

4. *Hirugarren zikloko lanagatik irakasleei aitortu beharreko irakats-betebegarretako kredituak, ikerlanen kasuan, bi ikasturte osatzerakoan aitortuko zaizkie; doktoregoko ikastaroen kasuan, berriz, ikasturte bat osatzerakoan.*

1.3.b) Kredituak aitortzea ikasketa birtualeko irakats betebegarrengatik

- *Ikasketa birtualak ematen dituzten irakasleek eskubidea izango dute euren irakats-betebegarrek eskolak ikasgelan bertan emango balituzte bezalaxe zenbatzeko.*
- *Esperientzi geletako irakasleek eskubidea izango dute euren irakats-betebegarrek zenbatu daitezen homologatutako ikasketa planen barruko irakaskuntza emango balute bezalaxe.*

**ERABAKIA, 2001eko URRIAREN 2koa, IRAKASLEEN
ERREKTOREORDEARENA, IKASKETA BIRTUALAK EDO ESPERIENTZIA
GELETAKO IKASKETAK EMATEN DITUZTEN IRAKASLEEN
IRAKATS-BETEBEHARREI BURUZKOA**

1. *Bide telematikoen bitartez eskolak ematen dituzten irakasleek (hau da, ikasketa birtualak ematen dituztenek) eskubidea izango dute euren irakats betebeharrak kasuan kasuko irakasgaiak dauzkan kredituen arabera zenbatu daitezen, hau da, eskolak ikasgelan emango baliutuzte bezalaxe.*

2. *Esperientzi geletako irakasleek eskubidea izango dute euren irakats-betebeharrak zenbatu daitezen Unibertsitateen Kontseiluak homologatutako ikasketa planen barruko irakaskuntza emango balute bezalaxe*

1.3.c) Kredituak aukera askeko irakasgai bereziengatik

- Aukera askeko irakasgaien ordutako balioa: kreditu bakoitza ikasgelako eskoletako 7,5 orduren parekoa izango da.

**ERABAKIA, 2000ko AZAROAREN 20koa, AKADEMI ANTOLAKUNTZAKO
ERREKTOREORDEARENA, AUKERA ASKEKO IRAKASGAI BEREZIAK
IKASGELAKO ESKOLA ORDUEKIN BALIOZKOTZEARI BURUZKOA**

Aukera askeko irakasgai bereziok ikasketa-plan berri egokituerako ikasleek ere hartu abal dituzte, apirilaren 30eko 799/1998 Edren arabera. Hori kontuan hartuta, eta Gobernu Batzarrak ikasketa plan horietako kreditu bakoitzari ordutan ematen dion balioa aintzat izanik (1998ko maiatzaren 18ko erabakia), honakoa aukera askeko irakasgaien ordutako balioa Gobernu Batzarrak 1998ko maiatzaren 18an erabakitakoa izango dela, hau da, kreditu bakoitza ikasgelako eskoletako 7,5 orduren parekoa izango da. Hori berdin izango da hala ikasketa plan berri egokituetako ikasleentzat nola plan ez egokituetako ikasleentzat, apirilaren 30eko 799/1998 EDaren arabera.

1.3.d). Kredituak practicum, gidaritzapeko praktika, egonaldi eta karrera amierako proiektuengatik

- Aurreko ikasturteko ikasle kopurua kontuan izanda, guztira, irakats betebeharrak irizpide honen arabera banatuko dira:

- Practicum, gidaritzapenako praktika eta egonaldietarako: 0,01 kreditu, ikasleko eta irakasgai bakoitzeko kredituko.
- Karrera amaierako proiektuetarako:
0,5 kreditu, 8 kreditura arteko karrera amaierako proiektuetarako.
0,75 kreditu 8 kreditu baino gehiago baino 12 baino gutxiago dituzten karrera amaierako proiektuetarako.
kreditu bat 12 kreditu baino gehiago dituzten karrera amaierako proiektuetarako.

GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIA, 2001eko OTSAILAREN 22koa,
PRACTICUM ETA NAHITAEZ KANPOKO KLINIKETAN
EGIN BEHARREKO PRAKTIKENGATIK EMAN DAITEKEEN
IRAKATS BETEBEHARREI BURUZKOA

Irakats betebeharra irizpide hauen arabera kalkulatu da:

Practicum, gidaritzapeko praktika eta egonaldietarako: aurreko ikasturteko ikasle-kopurua kontuan hartuta, guztira, 0,01 kreditu ikasleko eta irakasgai bakoitzeko kredituko. Ikastegiak edo sailak banatuko ditu betebeharrak ikasleen artean, horretarako zehaztutako irizpideen arabera.

Karrera amaierako proiektuak: aurreko ikasturteko ikasle-kopurua kontuan hartuta, guztira, 0,5 kreditu defendatutako karrera amaierako proiektu bakoitzeko, proiektua gehienez ere 8 kreditukoa bada; 0,75 kreditu, proiektuak 8 kreditu baino gehiago baina 12 baino gutxiago baditu; kreditu 1, proiektuak 12 kreditutik gora baditu. Ikastegiak banatuko ditu betebeharrak ikasleen artean, horretarako zehaztutako irizpideen arabera.

1.4. Hirugarren zikloko programak eta aukera askeko irakasgaiak

- Sailak enborreko, derrigorrezko eta hautazko irakasgai guztiak irakatsiak izango direla bermatuko du, bai euskaraz, bai gaztelaniaz. Derrigorrezko irakaskuntza honez behar bezala arduratu ondoren eskaini ahal izango ditu hirugarren zikloko programetako irakasgaiak eta ukaera askeko irakasgaiak.

IRAKASLEEN GESTIORAKO IBILTORRIA 2002

(Gobernu Batzarrak 2001-10-23an onartua)

2. Irakaskuntzaren plangintza Irakasleen kopurua gehitzeko eskaria.

Sailak, irakaskuntza bertako irakasleen artean banatzerakoan, enborreko eta derrigorrezko irakasgaia guztiak irakatsiak izango direla bernatuko du, bai euskaraz –UPV/EHUk onartutako hizkuntza-plangintzaz bat bai gaztelaniaz, eta esleituta dituen ikasketa-plan eta ikastegi guztietan. Ikasleek ikasi behar dituzten baitazko irakasgaien kopurua ere emango dela ziurtatu beharko du. Derrigorrezko irakaskuntza honez behar bezala arduratu ondoren eskaini abal izango ditu hirugarren zikloko programetako irakasgaiak eta ukaera askeko irakasgaiak.

1.5. Irakasleak liberatzea kargu akademikoak izateagatik

- Unibertsitateko gestioko zenbait organotan parte hartzeagatik, irakasleek eskubidea dute beren betebeharretatik salbuetsita egoteko.

UPV/EHUko ESTATUTUAK
(1985eko martxoaren 21eko EBO, 62. zk.)

76. artikulua. Errektorea, duen irakaskuntza jardueratik eta, Unibertsitateko katedraduna den aldetik, lituzkeen eginbeharretatik salbuetsirik geldituko da, horretarako, dagokion sailari horixe adieraztea aski izanez.

81. artikulua. Errektoreak, bai errektoreordeak eta bai idazkari nagusia ere, beren irakaskuntza eginbeharretatik osorik edo zatiz, salbuets ditzake.

89. artikulua. Dekano eta zuzendariek beren irakaskuntza eginbeharrek, gebien dela, beren arduraldiaren bi berenetan murriztu ahal izango dituzte, hori errektoreari eta dagokion sailari jakinaraziz.

92. artikulua. Dekano edo zuzendariek ikastegien dekanorde, zuzendariorde eta idazkariak beren irakaskuntza eginbeharretatik, gebien dela, berean arduraldiaren erdiraino salbuets ditzakete, hori errektoreari eta dagokion sailari jakinaraziz.

2. LAN BALDINTZAK ARAUTZEKO HITZARMENA

2.1. Lan-eguna

- Irakats betebeharrak (eskolak eta tutoretza orduak) ikasturte bakoitzeko indarrean dagoen egutegiaren arabera beteko dira (urte osoan egingo da horrela, ez eskolaldian bakarrik).
- Asteko irakats-betebeharrez gain honakoak egin beharko dira:
 - a) Saileko gestio eta administrazioarako eginkizunak (batzordeetara joatea, idazkari lanak egitea edo irakasleak dituen beste eginkizun batzuk betetzea).
 - b) Ikerketa lanak; gutxienez, asteko lanorduen 1/3 osatu arte.
 - c) Ikastaroak, mintegiak eta hitzaldiak, eta unibertsitateko kultur hedakuntzako ekintzetan parte hartzea.
- Eskolaldian, irakasleak ziklo guztietan eskolak emateko eta tutoretzak egiteko betebeharra dauka, beti ere, UPV/EHUko langileen lan baldintzak araupetzeko hitzarmenean zehaztutakoren babesean.
- **Denbora osoko arduraldia duten irakasleek:** unibertsitateko katedradunak eta titularrak, unibertsitateko irakasle lagunak, unibertsitate eskoletako katedradunak, unibertsitate eskoletako titular doktoreak eta unibertsitate eskoletako irakasle lagun doktoreak, arduraldi osokoak:
 - * Astean 8 eskola-ordu (teoria eta praktikak) eta 6 tutoretza-ordu; o ikasleei laguntza emateko
- **Unibertsitate eskoletako titularrak eta unibertsitate eskoletako irakasle lagunak, doktore titulurik ez dutenak, gehienez ere emango dituzten orduak:**
 - * Astean 12 eskola-ordu (teoria eta praktikak) eta 6 tutorego-ordu eta ikasleei laguntza emateko.

- Doktorego-tesia egiten ari diren unibertsitate eskoletako irakasleek gehienez emango dituzten orduak:
 - * Astean 10 eskola-ordu (teoria eta praktikak) eta 6 tutorego-ordu eta ikasleei laguntza emateko.
- Denbora partzialeko arduraldia duten irakasleek, gehienez ere:
 - * Astean 6 eskola-ordu eta 6 tutorego-ordu, 6 orduko kontratua izanez gero.
 - * Astean 4 eskola-ordu eta 4 tutorego-ordu, 4 orduko kontratua izanez gero.
 - * Astean 3 eskola-ordu eta 3 tutorego-ordu, 3 orduko kontratua izanez gero.
- Doktorego-programetan emandako eskola-orduek bikoitza balioko dute.
- UPV/EHUko aurrekontuko beharrianen arabera, murriztu egin daitezke unibertsitate eskoletako irakasleen irakats-zama, UPV/EHUko Mahai Sektorialak 2001eko azaroaren 5ean hartutako erabakiko i puntuan zehaztutakoari jarraituz (Erabakia enplegua sortzeari eta langileak promozionatu eta egonkor egiteari buruzkoa da).

*UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO/EUSKAL HERRIKO
UNIBERTSITATEKO LANGILEEN LAN-BALDINTZAK
ARAUTZEKO HITZARMENA
(1996ko azaroaren 12ko E.H.A.A.)*

*VI. TITULUA: EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO
IRAKASLEEI BEREZIKI APLIKATZEKO XEDAPENAK*

I. KAPITULUA: LAN EGUNA

67. artikulua. 1. Denbora osoko arduraldia duten irakasleen lan-egunaren iraupena, erreferentziako Administrazioarenak izango dira.

Lan-egun bonen barruan, denbora osoko arduraldia duten unibertsitateko katedradun eta irakasle titularren, fakultateko irakasle lagunen eta unibertsitate eskoletako katedradunen aste-

roko irakats betebeharrak, edozein kasutan eta gebien dela, bonakoak izango dira: zortzi eskola-ordu eta sei tutoretza-ordu edo ikasleei laguntza ematekoak, osasun-pertsonalaren kasuan kontzertaturiko ospitaletan egin ahal izango dira.

Lan-eguna irakaskuntza eta ikerkuntza jardueren artean banatuko da, bai eta sail, ikastegi edo unibertsitatearen gestio eta administrazio-premiak asebetetzeko eta UPV/EHUREn Estatutuek unean-unean aipaturikoetan ere.

Edozein kasutan, lan-egunaren herena ikerkuntza zereginetan erabiliko da.

2. Denbora osoko arduraldia duten unibertsitate eskoletako irakasle titularren eta unibertsitate eskoletako eta unibertsitate eskoletako irakasle lagunen asteroko irakats betebeharrak, edozein kasutan eta gebien dela, bonakoa izango da: hamabi eskola-ordu eta sei tutoretza-ordu edo ikasleei laguntza ematekoak.

Halere, doktoregoa lortu duten Irakasle Titularen betebeharrak, edozein kasutan eta gebienez, zortzi eskola-ordu eta sei tutorego-ordu edo ikaslegoari laguntza ematekoak, izango dira, kasu honetan, era berean, gutxienez lan-egun osoaren herena ikerkuntza-zereginetan erabili behar dela kontutan harturik.

Era berean, doktorego-ikastaroak burutuak dituzten unibertsitate eskoletako irakasleen betebeharrak, doktorego-tesia egiten ari direla ziurtatzen badute, gebienez hamar eskola-ordu eta sei tutoretza-ordu edo ikasleei laguntza ematekoak izango dira, beti ere, aurrekontu-baliabideak izan eta irakasleak gehitzea lortuz gero.

3. Denbora partzialeko arduraldia duten irakasleek, beren irakaskuntza zein tutoretza eta ikasleei laguntza ematarik ondorioztaturiko lan-eguna izango dute, baina, gebienez ere, sei ordu eta, gutxienez, hiru ordu izango dituzte eskolak emateko eta tutoretza edo ikasleei laguntza emateko, unibertsitatearen irakaskuntza eta ikerkuntza premien arabera.

4. UPV/EHUko lanpostuen zerrenda teorikoa diseinatzeko irizpide orokorretan kontutan izango dira karrera-amaierako proiektuak zuzentzeko orduak, bai eta ikasketa-planetan enborrekotzat jotzen diren practicumak ere, izan ere, horiek ere eskola-ordutzat hartuko dira.

5. Doktorego-programetan emandako eskola-orduek bikoitza balioko dute.

6. Hala eta guztiz ere, arlo honen inguruan legerian eginiko erreformak edo erabaki berriek egungo eskola-ordu hauetan aldagetarik egingo balute, murrizketa automatikoki aplikatuko litzaioke dagokion irakasleari aurreko pasartearen arabera.

7. *Lan-eguna, edozein kasutan, bateragarria izango da zientzi, teknika edo arte-proiektuak egitearekin, kasuari aplikatu dakizkikeen bateragarritasun arauekin bat eginez.*

68. artikulua. *Batzorde Parekidearen barruan ondoko gai hauei buruzko arazoak aztertuko dira:*

– 55 urtetik gorako unibertsitate eskoletako irakasle titularren egoera, 24 kreditu baino gehiago ematen dituztenean.

– 60 urtetik gorako irakasleen borondatezko jubilazioa.

69. artikulua. *Irakaskuntzari eskainiriko denboraren neurketa urteka egin ahal izango da.*

Irakaskuntza eta tutoretza-lanen gutxieneko betekizunak behar bezala bete daitezela kalterik egiteke, Unibertsitateak, Estatutuekin ados etorriz eta Batzorde Parekidearen aurretiko onepenez, lan-egun barruan egin beharreko bestelako jarduerak aipatu ahal izango ditu, hone-tarako muga bakarra ikerkuntzari eskaini beharreko lan-egunaren gutxieneko herena delarik.

70. artikulua. *Irakasleen arduraldi-erregimena denbora osokoa izango da batez ere; Euskal Herriko Unibertsitatea, aurrekoari kalterik egiteke eta zerbitzuaren premiek ahalbidet-zen badute, irakasleek eskaturiko erregimena eskaintzen saiatuko da.*

Ezin izango da, ikasturtean zehar, arduraldi-erregimenaren aldaketarik baimendu, aparteko premia larrien kasuan ez bada eta, edozelan ere, Batzorde Parekideak eman beharko du horren berri.

UPV/EHUko MAHAI SEKTORIALAREN ERABAKIA, 2001eko AZAROAREN 5ekoa, ENPLEGUA SORTZEARI ETA LANGILEAK PROMOZIONATU ETA EGONKOR EGITEARI BURUZKOA

3. Enpleguari buruzko neurriak:

i) *Unibertsitate eskoletako irakasleei eskola-orduak gutxitzea: orokorrean, asteke 10 ordu ezartzea, eta 8 ordu doktoregoko tesia egiten ari diren irakasleentzako. Neurri hori 2002/2003 ikasturtetik aurrera ezarriko da, gutxika-gutxika, UPV/EHUko aurrekontuetan dauden auke-ren arabera.*

Doktoregoko tesia egiten ari diren irakasleek asteen 8 eskola-ordu izango dituzte tesia bukatu artean, baina, gehiez ere, bi urtean. Epe horretan, doktoregoko tesia irakurriz gero, UPV/EHUko langeileen lan-baldintzak arautzeko indarreko hitzarmenean zehaztutako irizp-dea ezarriko zaie. Bi urteko epea bukatu eta tesia irakurri gabe badute, asteen 10 eskola-ordu izango dituzte berrirori ere.

IRAKASLEEN ERREKTOREGOKO ZIRKULARRA (2002-10-09)

Oraingoz behintzat ezinbestekoa da klausularen indarra mugatzea ondorio ekonomikorik izango ez duen eta ados jarrita segituan gauza daitekeen arlora, hau da, irakats abalmenean soberakinak dauzkaten sailetara (soberakinak esatean irakats betebeharrekin alderatuta esan nahi dugu). Oraingoz, eta unibertsitatekideok irizpide nagusiak eratu artean, Sailetako Kontseiluek ezarriko dituzte irizpideak Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Mahai Sektorialaren azaroaren 5eko Akordioaren 3i) puntua betetzeko, eta beti ere sailak izan ditzakeen soberakinak lehendabizi akordioan aipatzen diren irakasleen artean banatuz.

II. KAPITULUA: EGUTEGIA ETA OPORRAK

2.2. Egutegia eta oporrak

- Ikasturte bakoitzaren hasieran, ikastegi, sail edo institutu bakoitzaren egutegia jakinaraziko da, eskola teoriko eta praktikoa, mintegi eta tutoretza edo ikasleei laguntza emateko asteko ordutegi pertsonalizatua zehaztuta eta jarduera horietarako lekua aipatuta.
- Akademi egutegian, halaber, udako oporraldien epea jasoko da: hilabeteak izango da eta, edozelan ere, eskolalditik kanpo.

71. artikulua. Ikasturte bakoitzaren hasieran, ikastegi, sail edo institutu bakoitzaren egutegia jakinaraziko da, eskola teoriko eta praktikoa, mintegi eta tutoretza edo ikasleei laguntza emateko asteko ordutegi pertsonalizatua zehaztuta eta jarduera horietarako lekua aipatuta.

Ordutegi eta egutegi akademikoarekiko desadostasunagatik agertutako kexak, Gobernu Batzarrak aztertu eta ebatziko ditu, Batzorde Parekidearen proposamenari jarraituz.

72. artikulua. Ordezkaritza, gobernu-kargu edo ordezkotasun sindikalengatik ikasturtean zehar jazoriko edozein aldaketa behar bezala jakinaraziko da.

73. artikulua. Akademi egutegian, halaber, udako oporraldien epea jasoko da: hilabeteak izango da eta, edozelan ere, eskolalditik kanpo.

ESKOLA EGUTEGIA. 2002/03 IKASTURTEA***1. Laubilabeteko eskolaldia osatzen duten asteak***

Urtea	Zenbatgarren astea	Izena	Asteko astelehena
2002	1. astea	S1	irailak 23
	2. astea	S2	irailak 30
	3. astea	S3	urriak 07
	4. astea	S4	urriak 14
	5. astea	S5	urriak 21
	6. astea	S6	urriak 28
	7. astea	S7	azaroak 4
	8. astea	S8	azaroak 11
	9. astea	S9	azaroak 18
	10. astea	S10	azaroak 25
	11. astea	S11	abenduak 02
	12. astea	S12	abenduak 09
	13. astea	S13	abenduak 16
2003	14. astea	S14	urtarrilak 07
	15. astea	S15	urtarrilak 13

AZTERKETAK

Asteak	urtarrilak 20
	urtarrilak 27
	otsailak 03

2. Laubilabeteko eskolaldia osatzen duten asteak

Urtea	Zenbatgarren astea	Izena	Asteko astelehena
2003	16. astea	S16	otsailak 10
	17. astea	S17	otsailak 17
	18. astea	S18	otsailak 24
	19. astea	S19	martxoak 03
	20. astea	S20	martxoak 10
	21. astea	S21	martxoak 17
	22. astea	S22	martxoak 24
	23. astea	S23	martxoak 31
	24. astea	S24	apirila 07
	25. astea	S25	apirila 14

26. astea	S26	apirila 28
27. astea	S27	maiatzak 05
28. astea	S28	maiatzak 12
29. astea	S29	maiatzak 19
30. astea	S30	maiatzak 26

AZTERKETAK

Asteak	ekainak 02
	ekainak 09
	ekainak 16
	ekainak 23

OHAR GARRANTZITSUA

Aste horietan jaiegunak edo oporregunak izan arren (Neguko edo Udaberriko oporrak), irakasleen irakats betebeharrak eta ikasleek hartuko dituzten eskolak neurtzerakoan, aste guztiak bost eskola egunekotzat hartuko ditugu.

Hautaprobak

Ohiko deialdia: 2003ko ekainaren 11, 12 eta 13

Ezohiko deialdia: 2003ko 9, 10 eta 11

2.3. Indemnizazioa campusen arteko joan-etorriengatik

- Irakaslana orain artekoa ez den beste campus bateko ikastegi batean eman behar denean, edo batean baino gehiagotan eman behar denean, beti ere irakasleak etxebizitza horri dagokion lurraldean ez badu, ondoren adierazten diren kontzeptuen gastuak ordainduko zaizkio, baldin eta ikastegia dagoen herrira bizitzera joaten ez bada irakaslea.

ZERBITZU ORDAINEI BURUZKO ZIRKULARRA, 2002/2003 IKASTURTEKOA,
IRAKASLEEK 1. ETA 2. ZIKLOKO ESKOLAK BEREZ
DAGOKIENAZ BESTELAKO CAMPUSEAN
EMAN BEHAR DITUZTENERAKO

1. Bazkari gastuak:

- Irakasleak egun berberean goiz eta arratsaldean eman behar duenean eskola.
- Goizeko eskola eguerdiko 14:00etan amaitzen denean (edo 13:00etan garraiobide publiko eta kolektiboak erabiltzen badira).
- Arratsaldeko eskola 16:00ak baino lehenago hasten denean (edo 17:00etan garraiobide publiko eta kolektiboak erabiltzen badira).
- Azterketetan ez da bazkari gasturik ordainduko.

2. Bidaia gastuak: Oro har, BIDAIAK GARRAIOBIDE PUBLIKO ETA KOLEKTIBOAZ EGINGO DIRA eta txartelaren prezioa ordainduko zaio interesatuari.

Ibilgailu partikularra erabiliko balitz, horren gastua titularrari edo berori erabiltzeko baimena daukan pertsonari bakarrik ordainduko zaio, ibilgailua zenbat pertsonak erabili duten kontuan hartu barik. Zenbatekoa, berriz, Lan Baldintzak Arautzeko Hitzarmenean jarritakoa izango da (autopistako txartela eta 0,24 euro/ kilometroko, gaur egun).

3. BAIMENAK, LIZENTZIAK ETA BAJAK

3.1. Baimenak eta lizentziak

- Aipatu bezela, udako oporrak hilabetekoak izango dira eta ezin izango dira eskolalditik kanpo hartuko. Irakasleak eskolaldian hartu nahi badi-tu oporrak, GP1 inprimakia bete beharko du (lizentzia eta baimeneta-rako inprimaki arautua, honekin batera doana) eta eskari-egileak berak eta dekanu/zuzendariak sinatu beharko dute. Horrez gain, sailak txoste-na erantsi beharko du aldi horretan eskolak nola emango diren azal-tzeko.
- Lizentziak eta baimenak ondoren zehaztuko diren akordio eta araudien bidez daude araututa, eta eskaria irakasleak berak egin behar du arra-zoiak ondo azalduta eta lizentzia edo baimena zein aldirako eskatzen duen zehaztuta.
- Eskariarekin batera txostena aurkeztu beharko da, bai eta lizentzia edo baimena arrazoitzeko beharrezko diren agiriak ere. Horiek guztiak UPV/EHUko erregistrora eraman behar dira, baimena edo lizentziaren aldia hasi aurretik. Irakasleak ezin izango du bere lantokia utzi jakin gabe bere baimena tramitatzen ari direla. Hau da, eskaera hartua izan behar du sinadura guztiekin edo, bestela, Irakasleen Atalera deitu ahal izango du tramitazioaren egoeraren berri izate-ko. ([Ana] telefono luzapena: 5070).

IRAKASLEEN ERREKTOREORDEAREN ZIRKULARRA, 99-11-26KOA

1. *Lizentzia eta baimenak, Unibertsitateko irakasleen erregimenari buruzko apirilaren 30eko 898/85 EDaren 9.7. artikuluan eta UPV/EHUko Langileen Baldintzak Arautzen dituen Akordioaren (1996ko azaroaren 12ko EHAAn) II. tituluan eta 77. artikuluan daude araututa.*

2. *Irakasleak lizentzia edo baimena GP1 inprimakia erabiliz eskatu behar du. Inprimaki hori ongi beteta bidali behar da, hau da, interesdunak eta ikastegiko dekanu/zuzendariak sinatuta eta eskaeraren zergatia eta eskatzen den baimen aldia argi zehaztuta.*

3. *Inprimakiarekin batera honako dokumentazio hau bidali behar da:*

a) *Saileko zuzendariaren txostena baimen aldian irakaskuntza nola beteko den adierazita.*

b) *Eskaera justifikatzen duen dokumentazioa: inskripzioa, gonbidapena, ponentzia...*

4. *Eskaria UPV/EHUko erregistro orokorretan aurkeztu behar da eskatzen den baimen aldian hasiera data baino lehen. Irakasleak ezin izango du bere lanpostua utzi bere lizentzia/baimena tramitatuta dagoela edo tramitatzen ari dela ziurtatu gabe. Horretarako, GP1 dokumentua, baimen sinadura guztiekin, jasoa izan behar du, bestela Irakasleen Atalera dei dezake tramitazioaren egoera zein den galdetuz (5070 luzapena).*

5. *Gaixotasun edo istripuagatik lizentzia eskatzen denean, irakasleak lehenbailehen jakinarazi behar ditu Irakasleen Atalean baja eta alta datak, informazio honek, ordezkapena behar den kasuetan, ordezko irakaslearen kontratuaren bukaera datan eragina baitu.*

77. Artikulua. UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO LANGILEEN LAN BALDINTZAK ARAUTZEKO HITZARMENA (B.O.P.V. 96-11-12)

Espainiar edo atzerriko unibertsitate, erakunde edo ikastegiren bati loturiko irakaskuntza eta ikerkuntza lizentziak Unibertsitateak emango ditu, Estatutuekin bat etorritik, Batzorde Parekidea entzun eta gero, eta aurrekontu-erabilkertasunen barruan.

Irakaskuntza eta ikerkuntzarako lizentziak, Hitzarmen hau aplikatzen zaien irakaskuntza kategoría guztietako denbora osoko irakasleek eskatu ahal izango dituzte.

Hitzarmen hau aplikatzen zaien irakaskuntza kategoría guztietako denbora osoko irakasleek, eritasun, istripu, ez akademi erakunderako zerbitzuen betekizun, zerbitzu berezien egoera edo liberazio sindikalengatik, gutxienez hamazortzi bilabetez irakaskuntza eta ikerkuntzatik at egon badira, irakaskuntza eta ikerkuntza lizentziaz gozatzeko eskubidea izango dute

gehienez hiru hilabetetarako, hauetan zehar arduraldi osoan egonda kibratuko lituzketen ordainketa guztiak jasoz. Era berean, Unibertsitatean gutxienez hamazortzi hilabetez kargu akademikoren bat izan duten pertsonak, hori bukatzean, gehienez ere hiru hilabetez, hura betezen zuten artean irakaskuntzan eskola gutxiago emateko salbuespen beraz gozatu ahalko dute.

Unibertsitateak, Batzorde Parekidea entzun eta gero, aurreko pasartean aurreikusiriko kasuen artean ez dagoen ikasketengatik lizentzia gozatzen duten irakasleek jaso behar dituzten ordainketak zehaztuko ditu. Lizentziak urtean kontaturiko irakaskuntza arduraldiaren murrizpenik eragiten ez duenean, irakasleak bere ordainketa osoaren %100 jasoko du.

Batzorde Parekidearen txostena aldekoa denean, emaniko ordainketa ukituriko irakaslearen ordainketen osotasunera iritsiko da, eskaturiko lizentzia hiru hilabetetakoa baino luzeagoa ez bada, eta aipaturiko ordainketen %80a iritsiko da hiru hilabetetakoa baino handiagoa eta urte bete baino laburragoa bada edo, azken kasu honetan, lanaren zientzi eta akademi interesak honetarako aholkua ematen duenean.

Urte bete baino epe handiagoetarako lizentziek, edo aipaturiko epea gainditzen duten azken bost urteetan jadanik lorturikoen ondokoek, ez dute inolako ordainketarik eragingo. Azken kontaketa honetarako, ez dira kontuan hartuko bi hilabete baino laburragoak, ez eta urtean kontaturiko irakaskuntza arduraldiaren murrizpenik ekarri ez dutenak ere.

Hala eta guztiz ere, eta aurrekoari kalterik egiteke, Euskal Herriko Unibertsitateak euskal kulturaren zientzi eta teknikaren alorretan duen emari apartekoagatik eta honek bere xedeak burutu eta bere Historia eta gizarte eta ekonomi, politika eta kultur aldaketetarik ondorioztaturiko premiak asebite ditzan, Gobernu-Batzarrak banan-banako laguntzak ematea zehaztuko du.

3.2. Bajak

- Gaixotasunagatik hartutako bajak, ustez, bi hilabete baino gutxiagoa iraungo duenean, sailak bete beharko du baja hartu duen irakaslearen lana.
- Indarreko legediaren arabera (575/1997 Errege Dekretuko 1. eta 2. artikulak; 117/98 Errege Dekretuaren bidez aldarazia), hiru eguneko epea dago baja eta altako parteak enpresara eramateko eta, era berean, zehaz-

tuta dago enpresak zein epe daukan parte horiek Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzailera eramateko.

- Gogorarazi nahi dizuegu oso garrantzitsua dela epearen barruan entregatzea baja eta altako parteak Gizarte Segurantzari, horien bidez izango baita eskubidea gaixotasun lizentziarako eta, askotan, langile ordezkoa izendatzeko. Bajak eskolak ematen dituzuen ikastegian bertan entregatu behar dira.

575/1997 ERREGE DEKRETUA, APIRILAREN 18koa, GIZARTE
SEGURANTZARI BURUZKOA. ALDI BATERAKO EZINTASUNAGATIKO
PRESTAZIO EKONOMIKOEN GESTIO ETA KONTROLARI BURUZKO
ZENBAIT ARLO ARAUTZEN DITUENA
(Ekainaren 5eko 1117/1998 EDk Aldarazia)
(1997ko Apirilaren 24ko eta 1998ko Ekainaren 18ko E.B.O.)

1. artikulua. *Medikuaren baja eta altak, kontingentzia arruntaren ondoriozko aldi baterako ezintasunagatik Gizarte Segurantzatik prestazio ekonomikoak lortzeko.*

1. Aldi baterako ezintasunagatik prestazio ekonomikoa eskuratzeko, beharrezkoa da mediku baja izatea. Horretarako baja-gaztigua erabiliko da eta osasun zerbitzu publikoan langilea aztertu duen medikuak osatu beharko du. Medikuaren baja-gaztigua da laguntza eskuratzeko eskubidea aitortzeko edo ukatzeko egin behar diren tramiteak hasteko behar den agiria.

2. artikulua. *Osasun zerbitzu publikoen, enpresen eta langileen betebeharrak.*

2. (...) Langileak hiru eguneko epea dauka medikuak baja-gaztiagua ematen dion egunetik kontatzen hasita enpresari baja-gaztigutik dagokion kopia emateko. Enpresak berari dagozkion datuak beteko ditu, 1983ko apirilaren 6an Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioak emandako agindiku 6. eta 7. artikuluei jarraituz (Gizarte Segurantzako sisteman aldi baterako ezintasun egoerak kontrolatzeko emanak; 1983/736 RCL). Agiri hori behar bezala bete eta zigilatu ondoren, erakunde kudeatzailera bidali beharko du enpresak; horretarako bost eguneko epea izango du baja-gaztiguaren kopia hartu zuen egunetik kontatzen hasita, eta edozein baliabideren bidez egin dezake igorpena, baldin eta jakinarazpena egin egin dela jasota geratzen bada. Baja gaixotasun arrunt edo lanekoa ez den istripuaren ondorio bada eta enpresak prestazioetarako hitzarmena badauka lan istripu eta gaixotasun profesionaleen mutua-rekin, enpresak lehen aipatutako kopia igorri beharko dio.

Enpresak bere borondatez ordainketa bere gain hartzea erabakiz gero, ez dio baja-gazti-gurik bidali behar erakunde kudeatzaileari, guztia bat etorruta 1966ko azaroaren 25eko Aginduan zebaztutakoarekin (1966/192 RCL).

IRAKASLEEN GESTIORAKO IBILTORRIA - 2002

(Gobernu Batzarrak 2001-10-23an onartua)

4.4.2. Ezobiko prozedura - 12. Eranskina

Edozelan ere, bakarrik onartuko dira ustez bi hilabetetik gorakoak izango diren gaixotasun baje ordezko.

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

CONCESION DE LICENCIAS Y PERMISOS LIZENTZIA ETA BAIMENEN EMATEA

IMPRESO G.P. 1

SOLICITANTE — ESKATZAILEA		
APELLIDOS DEITURAK	NOMBRE IZENA	D.N.I. N.A.N.
PUESTO DE TRABAJO Y DESTINO ACTUAL LANPOSTUA ETA ORAINGO LANTOKIA		(CENTRO Y CUERPO, ESCALA O PLAZA) (IKASTEGIA ETA KIDEGOIA, ESKALA EDO PLAZA)

TLF./TEL:

MOTIVOS DE LA SOLICITUD — ESKARIAREN ZERGATIAK

LICENCIAS/ LIZENTZIAK

- ☐ Licencia por enfermedad o accidente
Gaixotasun edo istripua
- ☐ Licencia por gestación, alumbramiento y lactancia
Haurdunaldi, erditze edota bularra eman beharra
- ☐ Licencia por paternidad
Guraso izatea
- ☐ Licencia por adopción
Umea adoptatzea
- ☐ Licencia por matrimonio propio o de parientes
Norbera edota senideak ezkontzea
- ☐ Licencia por enfermedad grave o fallecimiento de parientes
Senideen gaixotasun larri edo heriotza
- ☐ Licencia por deberes inexcusables de carácter público o personal
Ezinbesteko betebeharrak pertsonal edo publikoak
- ☐ Licencia por traslado o mudanza del domicilio habitual
Etxez aldatzea
- ☐ Licencia por ejercicio de funciones de representación sindical o de personal
Langileen edo sindikatu baten ordezkari ihardun beharra

LICENCIAS DEL PROFESORADO REGULADAS EN EL DECRETO 898/85 DE 30 DE ABRIL (B.O.E. 19.6.85)
IRAKASLEENTZAKO LIZENTZIAK, APIRILAREN 30EKO 898/85ERREGE-DEKRETUAK ARAUTUTAKOAK (85.6.19Ko EBO)

MOTIVOS DE LA SOLICITUD.
ESKAERA EGITEKO ARRAZOIAK:

PERMISOS / BAIMENAK

- ☐ Cuidado de menores o minusválidos físicos, psíquicos o sensoriales
Adin gutxiak edota ezindu fisiko, psikiko edo sentsorialakzaindu beharra
- ☐ Realización de estudios de perfeccionamiento profesional directamente relacionados con la función o puesto que se desempeña
Langileak betetzen duen lanpostuarekin zerikusi zuzena duten hobekuntza-ikastaroak
- ☐ Realización de estudios no directamente relacionados con la función pública o plaza desempeñada
Langileak betetzen duen funtzio publiko edo lanpostuarekin zerikusi zuzenik ez duten ikastaroak
- ☐ Acudir a consultas, tratamientos y exploraciones de tipo médico
Osasun kontsulta, tratamendu edota azterketak egin beharra
- ☐ Asistencia a eventos colectivos de carácter científico, técnico, profesional, colegial, asociativo o sindical
Gal zientifiko, tekniko, edo profesionaletako biltzarretara joatea, edota kidego, elkarte edo sindikatuenetara
- ☐ Permiso sin sueldo por asuntos propios
Norberaren arazoak konpontzeko baimena, soldata barikoa

RELACION DE DOCUMENTACION JUSTIFICATIVA APORTADA BAIMENA JUSTIFIKATZEKO AURKEZTU DIREN AGIRIEN ZERRENDA			
OBSERVACIONES: a la presente instancia deberá adjuntarse el informe favorable del Director del Departamento, indicando como queda cubierta la docencia durante ese periodo, teniendo en cuenta lo establecido en el art. 9.7 del R.D. 898/85	OHARRAK: eskaera-orri honekin batera saileko zuzendariak egindako aldeko txostena aurkeztu beharko da, aldi horretan irakaslanazela beteko den zehaztuz, 898/85 EDaren 9.7. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta.		
Documento: 1. Agiriak : 2. 3.			
Lugar y Fecha: Lekua eta eguna:	Firma del solicitante: Eskatzailearen izenpea:		
VISTO BUENO DEL DECANO (FACULTADES) O DIRECTOR (ESCUELAS) DEL CENTRO DEKANOAREN (FAKULTATEAK) EDO ZUZENDARIAREN (ESKOLAK) ONESPENA			
VºBº O.E.			
INFORME DE LA JEFATURA DE LA SECCION DE PROFESORADO IRAKASLEEN ATALEKO BURUTZAREN TXOSTENA			
☐ Favorable Aldekoa	Retribución que percibirá de conformidad con lo establecido en el artículo 8 del R.D.898/85 de 30 de abril.		
☐ Desfavorable Kontrakoa	Ordainketak: apirilaren 30eko 898/85 EDaren 8.artikuluan ezarritakoaren arabera jasoko ditu.		
RESOLUCION — ERABAKIA			
Vista la solicitud formulada y el informe que a la misma se acompaña, este Rectorado ha resuelto en uso de las facultades conferidas en la Disposición Adicional 3ª del R.D. 2169/84 de 28 de Noviembre, así como lo establecido en los Estatutos de esta Universidad aprobados por Decreto 70/85 de 18 de Marzo (B.O.E. de 11.6.85), autorizar la concesión del permiso y/o licencia solicitado.			
Egindako eskaera eta aurkeztutako txostena ikusita, Errektorego honek baimen edota lizentzia hori ematea erabaki du, hori guztia azaroaren 28ko 2169/84 EDaren 3. xedapen gahigarrian eman zaizkion ahalmenez baliatuz, eta unibertsitateko Estatuetan ezarritakoaren arabera (martxoaren 18ko 70/85 Dekretuaren bidez onartuak, 85.6.11ko EBO).			
Leioa, Leioa,	de. eko	de 199 AREN	a.
El Rector P.O. El Vicerrector de Profesorado		Errektorea B.A. Irakaslegorako Errektoreordea	

4. BATERAEZINTASUNAK

- Irakasleen lana bateraezina da edozein kargu, lanbide edo jarduerarekin –publikoa zein pribatua, baldin eta horrek bere betebeharrak betetzea eragozten badio, betebeharrak behar bezala ez betetzea eragiten badio edo inpartzialtasuna edo independentzia hausten badio.

598/1985 ERREGE DEKRETUA, APIRILAREN 30^{ekoa}, ESTATUKO
ADMINISTRAZIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MENPEKO
ERAKUNDE ETA ENPRESETAKO LANGILEEN
BATERAEZINTASUNARI BURUZKOA
(1985eko maiatzaren 4ko E.B.O., 107. zk.)

III. BATERAGARRITASUNA JARDUERA PRIBATUEKIN

10. artikulua. Ezin izango zaio aitortu bateraezintasuna arlo publikoan jarduera bi dituenari; salbuespena izango da bi jardueron lanaldia (biena batuta) astean berrogei ordura beltzen ez denean.

IV. GUZTIENTZAKO XEDAPENAK

15. artikulua. 1. Unibertsitateko irakasleei ezin izango zaie baimenik eman beste jarduera batzuk egiteko, ez arlo pribatuan ez publikoan, baldin eta lanaldi osoko kontratua badute. Hori guztia, kalterik egin gabe Unibertsitatearen Erreformaren Legeak 11. artikuluan, (Unibertsitateen Lege Organikoko 83. artikulua ordezkatua) eta 53/1984 Legeak 19. artikuluan zehaztutakoari.

UNIBERTSITATEEN 6/2001 LEGE ORGANIKOA (ULO)

(2001eko abenduaren 24ko E.B.O., 307. zk.)

83. artikulula. Lankidetza beste erakunde edo pertsona fisikoekin

Unibertsitateak onartutako ikerketa taldeek, sailek, unibertsitateko ikerketa institutuek eta bertako irakasleek kontratuak egin abal izango dituzte, pertsona, unibertsitate edo erakunde publiko zein pribatuekin zientzia, teknika edo artearen arloko lanak egiteko, bai eta espezializazio ikastaroak eta prestakuntzarako jarduera bereziak egiteko ere. Kontratu horiek talde, sail edo institutuen bitartez edo unibertsitatean irakasleen ikerketa ekimenak bideratu eta ikerketako emaitzak trukatzeko dauden antzeko organo, zentro, fundazio edo bestelako taldeen bitartez egin abal izango dituzte.

53/1984 LEGEA, ABENDUAREN 26koa, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO
LANGILEEN BATERAEZINTASUNEI BURUZKOA

(1985eko urtarrilaren 4ko E.B.O., 4. zk.)

19. artikulua. Lege honetan zebaztutako bateraezintasunetatik kanpo daude ondorengo jarduerak:

a) Norberen edo familiaren ondarearen administrazioak eragindakoak, beti ere, lege honetako 12. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

b) Mintegiak zuzentzea edo ikastaro edo hitzaldiak ematea zentro ofizialetan, beti ere, funtzionario edo irakasleen prestakuntzarako badira eta aldian aldikoak izanik urtean hirurogeita hamabost ordu baino gutxiagoak badira. Era berean, bateraezintasunetik kanpo daude funtzio publikora sartzeko ematen diren ikastaroak, baldin eta araudietan zebaztutakoarekin bat badatoz.

c) Administrazio publikoetara sartzeko egiten diren probetako epaimahaietako kide izatea.

d) Azterketa, proba eta ebaluazioetan parte hartzea (ohikoak ez badira), araudietan zebaztutako eran.

e) Funtzionarioen mutualitate edo patronatuetako zuzendaritza batzordeetako presidente, mahaikide edo kide izatea, beti ere, ordainsaririk gabekoak badira.

f) Literatura, arte, zientzia eta teknikaren arloko produkzioa eta sorkuntza, bai eta horiei buruzko argitalpenak ere, baldin eta lanpostua edo zerbitzuak betetzearen ondorioa ez badira.

g) Komunikabideetako mahainguru eta programetan parte hartzea aldian-aldian.

h) Lanarekin zerikusia duten jardunaldi, mintegi, hitzaldi edo ikastaroetan parte hartzea aldian-aldian.

5. ZERBITZUEN IKUSKARITZA

5.1. Ikuskapenak, diziplina espedienteak eta zehapenak

- Unibertsitate bakoitzean Ikuskaritza Zerbitzua sortuko da; betekizunak honakoak izango dira: diziplina espedienteen instrukzioan parte hartzea, eta akademi diziplinaren jarraipena eta kontrola egitea. Ikuskaritza Zerbitzuko kideak errektoreak izendatuko ditu, unibertsitateko Estatutuei jarraituz.
- Irakasle bati behar besteko etekinik ez izateagatik zehapena jartzeko, zenbait arau bete behar dira.
- Zehapenak funtzionarioen legedian zehaztutakoak izango dira.
- Arau-haustea behar besteko etekina ez izatea bada, hau da eskola orduak edo tutoretza-orduak ez betetzea bada, zehapena ordainsarieretatik galdutako orduak dagokiena kentzea izango da.
- Arau-haustea bateraezintasunen arloko bada, arau-hauste oso larria izango da.

APIRILEKO 898/85 ED, UNIBERTSITATEKO IRAKASLEEN ARAUBIDE JURIDIKOARI BURUZKOA

(146. E.B.O., 1985eko ekainekoa; okerrearen zuzenketa 170. E.B.O.n, uztailearen 17an)

LEHENENGO TITULUA

16. artikulua. 1. Zerbitzuen ikuskaritza eta diziplina espedienteen instrukzioa.-

1. Unibertsitate bakoitzean Ikuskaritza Zerbitzua eratuko da zerbitzuek nola funtzionatzeko

duten ikuskatzeko eta, era berean, parte hartzeko diziiplina espedienteen instrukzioan eta akademi dizplinaren kontrol orokorra egiteko.

2. Ikuskaritza Zerbitzuko kideak errektoreak izendatuko ditu unibertsitateko estatutuei jarraituz; zerbitzuan Gizarte Kontseiluan gizartearen aldetik dauden kideetako batek edo batek baino gehiagok hartu ahal izango dute parte, baina horrek ez du ekarriko lan-loturarik unibertsitatearekin.

3. Diziiplina espedienteetako instrukzio-egilea eta idazkaria errektoreak izendatuko ditu, Ikuskaritza Zerbitzuan funtzionario direnen artetik.

4. Ikuskaritza Zerbitzuak egoki diren txosten guztiak bildu ahal izango ditu.

17. artikulua. 1. Zehapena irakats lanetan edo ikerketa-lanetan behar besteko etekirik ez izateagatik. 1. Irakats lanak edo ikerketa-lanak behar bezala ez betetzeagatik irakasleari zehapena jartzeko, honako irizpideak bete beharko dira:

a) Espedientea ireki ondoren, instrukzio-egileak, Ikuskaritza Zerbitzuaren bidez, txosten bana eskatuko die hiru irakasleri edo espedientea ireki zaion irakaslearen jakintza arlo edo espezialitateko adituei (ahal dela unibertsitatekoak), irakasleak ematen dituen eskolen edukiei eta balioei buruzko eta egiten dituen ikerketei buruzko iritzia adieraz dezaten.

b) Espedientea irekita duen irakasleak, bere burua defendatzeko, teknikarien eta espezialisten txostenak aurkeztu ahal izango ditu instrukzio-egileak erabaki proposamena egin aurretik. Txostenok egotzi zaion araua-haustea gertatu zen garaiko irakats-jarduerari eta ikerketa-jarduerari buruzkoak izango dira.

2. Zehapenak funtzionarioen legedian zehaztutakoak izango dira.

18. artikulua. 1. Beste arau-hauste eta zehapen batzuk.- 1.- Arau-haustea behar besteko etekina ez izatea bada, hau da eskola orduak edo tutoretza-orduak ez betetzea bada, zehapena ordainsarrietatik galdutako orduetara dagokiena kentzea izango da.

2. Arau-haustea bateraezintasunen arloko bada, arau-hauste oso larria izango da.

19. artikulua. Ikuskaritza. 1. Errektoreak edo Gizarte Kontseiluak administrazio publikoei irakaskuntzako zerbitzuak ikuskatzeko eta horien gaineko txostenak egiteko eska diezaieke, zerbitzu horiek kontrolatzeko eta ebaluatzeko.

2. Arau-haustea egiten direla ikusiz gero, Estatuko administrazioak eta erkidegoak diziiplina espedientea irekitzea proposatuko die unibertsitateko eskudun organoari.

3. *Diziplinako arau-haustea eragin duen ekintza edo jarrera estali edo onartzen duten akademi agintariek (berdin dio zein den kargua edo maila) erantzukizuna izango dute eta arlo horretan antolamendu juridikoan zebatzutakoa ezarriko zaie.*

5.2. Zerbitzuen Ikuskaritza Eratzea

- Unibertsitate Publikoaren helburua goi-mailako heziketa, zerbitzu publikoa den heinean, ematea da, gizarteak zerbitzu hori kalitate eta bikaintasun mailarik altuenarekin jaso dezan.
- Unibertsitateak bertako zenbait organoen artean transmititzen diren datuen benetakotasuna egiaztatzeko egitura bat izan behar du, datu horiek gero erabakiak hartzeko erabiltzen baitira.
- Helburu horrekin, Erabaki honen bidez UPV/EHUko Ikuskaritza Zerbitzua sortu da.
- Zerbitzu horretan, hasieran, Ikuskaritza Zerbitzuko zuzendari bat, errektoreak jardunean dauden irakasleen artetik izendatuta, eta Zerbitzuetako ikuskari bat egongo dira. Izan daiteke, gerora, zerbitzu horretan kide gehiago aritzea.
- Hasiera batean, Ikuskaritza Zerbitzuak honako funtzioak izango ditu:
 - * Ikasturte bakoitzeko irakats eskaintzaren tramitazioaz eta onarpenaz arduratzen diren organoak laguntzea.
 - * Irakasle bakoitzari emandako irakats betebeharraren betetze-mailari buruzko informazioa biltzea.

ERABAKIA, 1999ko OTSAILAREN 4koa, UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREARENA, ZERBITZUEN IKUSKARITZA ERATZEKO

Unibertsitateak bertako zenbait organoen artean transmititzen diren datuen benetakotasuna egiaztatzeko egitura bat izan behar du, datu horiek gero erabakiak hartzeko erabiltzen baitira. Helburu horrekin, Erabaki honen bidez UPV/EHUko Ikuskaritza Zerbitzua sortzen da.

Lebena. *UPV/EHUko Ikuskaritza Zerbitzua sortzea. Zerbitzu horretan, hasieran, Ikuskaritza Zerbitzuko zuzendari bat, errektoreak jardunean dauden irakasleen artetik izenda-*

tuta, eta Zerbitzuetako ikuskari bat egongo dira. Azken horren lanpostua UPV/EHUko Lanpostu Zerrendan egongo da. Hartutako eskumenak ikusita eta aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta, Zerbitzuetako beste ikuskari batzuk izendatu abal izango dira.

Bigarrena. *Hasierako funtzio modura, Ikuskaritza Zerbitzuak honakoak hartuko ditu:*

a) Ikasturte bakoitzeko irakats eskaintzaren tramitazioaz eta onarpenaz arduratzen diren organoak laguntzea, betebeharrak akademikoak betetzen direla bermatzeko. Era berean, hurrengo ikasturteko irakats eskaintza eta irakats betebeharrak zehazteko, ikastegiei eman behar zaien informazioaren osagarri diren datuak bildu beharko ditu.

b) Irakasle bakoitzari emandako irakats betebeharraren betetze-mailari buruzko informazioa biltzea.

Hirugarrena. *Ikuskaritza Zerbitzua Irakasleen Errektoreordetzari atxikita egongo da, baina bizitza akademikoarekin zerikusia daukaten errektoreordetza guztiekin koordinatuta burutuko du bere lana.*

Laugarrena. *Erabaki honetan jasotako xedapenak Gobernu Batzarrak 1999ko otsailaren 3an egindako bileran onartutako “Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Zerbitzuen Ikuskaritzaren Egitura eta Eginkizunei buruzko Arautegian” garatzen dira.*

5.3. Irakasleen zuzendari plaza sortzea

- Irakasleen Errektoreordetzaren ustez komenigarria da gaur egungo irakaskuntza-egituran irakasleen zuzendariaren plaza sortzea, zuzendari horrek Ikuskaritza Zerbitzuari hasiera batean emandako eginkizunak bete ditzan, bai eta sail bakoitzean irakasleen arlorako dituzten politikak zehaztu, koordinatu eta jarraipena egitearekin zerikusia duten gainerako eginkizunak ere. Horrez gain, zuzendari horren eginkizuna izango litzateke ere plantila eguneratzeko lana. Horrela, bada, Irakasleen Zuzendari kargu akademikoa sortu da, Ikuskaritza Zerbitzuko zuzendari izango dena.
- Irakasleen zuzendariak honako eginkizunak izango ditu:
 - a. Irakasleen Lana Ikuskatzeko Zerbitzua zuzentzea.

- b. Ikasturte bakoitzeko irakats eskaintzaren tramitazioaz eta onarpenaz arduratzen diren organoak laguntzea.
- c. Irakats betebeharrak zein heinean betetzen diren jakiteko informazioa biltzea.
- d. Sailek duten irakats potentzialari buruzko informazio kuantitatiboa osatzea.
- e. Irakasle-eskaerak aztertzeako prozedura koordinatzea.
- f. Plantila teorikoaren eredia abian jartzeko lanak koordinatzea.
- g. Irakasleen errektoreak ematen dizkion gainerakoak.

ERABAKIA, 2001eko OTSAILAREN 22koa, GOBERNU BATZARRARENA, IRAKASLEEN ZUZENDARI KARGU AKADEMIKOA SORTZEKO DENA

1983tik aurrera Unibertsitatearen Erreformatarako Legeak sailen egitura sendotzea ekarri zuen eta horrek, unibertsitateko irakaskuntza jarduera eta ikerketakoa antolatzeak dakartzan zailtasunekin batera –izan ere, horiek antolatzeako batetik ikastegietako beharrianak eta bestetik, sailek irakaskuntzako beharrianak asetzeko dituzten aukerak izan behar dira kontuan irakasleen gestioa erraztuko duen kargu bat (irakasleen artetik aukeratua) sortzea edo egokitzea komenigarria dela erakutsi digu.

Beharrian hori are premiazkoagoa da UPV/EHUn, batetik campusak sakabanatuta izateak eta bestetik, hainbat ikastegi izateak, azken urteetan irakasle-kopurua nabarmen handitzea eragin baitute.

Bestalde, Unibertsitatea goi mailako hezkuntza eskaintzen duen zerbitzu publikoa izanik, gizarteak zerbitzu hori abalik eta kalitate handienarekin eskaintzean eskatzen du.

Unibertsitatearen kalitatea hobetu gurean eta gure giza baliabideak eraginkorrak izateko gogoan, orain arte abian jarritako ekimenen ildo beretik (irakats-eskaintza eta irakasleen irakats-betebeharrak zehazteko jardunbide bateratua eta Irakasleen Gestiorako Ibiltorria), aurrera goaz irakaskuntzaren planifikazioa hobetzeko bidean, horren guztiaren bidez irakasle eskaria hobeto asetzeko eta gizarteko egoerei erantzun egokiagoakoa emateko. Planifikazioa giza baliabideen gestiorako bide ez ezik, irakasleen politikarako baliabide eraginkorra ere bada, eta, beraz, planifikazio hori erabat osatzeko, beharrezko da erakundeak berak mekanismoak ezartzea.

Helburu horrekin, Gobernu Batzarrak, 1999ko otsailaren 3ko bileran, Zerbitzuen Ikuskaritzaren Egitura eta Eginkizunei buruzko Arautegia onartu zuen. Arautegi horretan jasota dago Ikuskaritza Zerbitzuko zuzendariaren kargua, bai eta hasiera batean zerbitzu horrek izango dituen eginkizunak ere.

Hala ere, ikusita adierazikoez gain badirela beste funtzio eta eskumen batzuk zerikusia dutenak sail bakoitzean irakasleen arlorako dituzten politikak zehaztu, koordinatu eta jarraitu pena egitearekin eta plantila teorikoa eguneratzeko lanekin, Errektoreordetza honen ustez egoki da gaur egungo irakaskuntza-egituran irakasleen zuzendariaren plaza sortzea, zuzendari horrek Ikuskaritza Zerbitzuari hasiera batean emandako eginkizunak eta lerroalde honetan zehaztutakoak bete ditzan irakasleen plantilako zuzendariarekin batera eta ikastegietako zuzendaril/dekano eta saileko zuzendariekin lankidetzan.

Horrela, bada, Irakasleen Errektoreordetzaren proposamenari jarraituz, Gobernu Batzarrak honakoa

ERABAKI DU

Lehenengoa. *Irakasleen Zuzendari kargu akademikoa sortzea, Irakasleen Errektoreordetzari lotuta. Zuzendari horrek Ikuskaritza Zerbitzua zuzenduko du.*

Bigarrena. *Zuzendariaren eginkizunak, ordainsariak eta liberazioa onartzea, erabaki honetako eranskinean jasotako eran.*

Hirugarrena. *Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta bere aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Gobernu Batzarrari hilabeteko epean; bestela, zuzenean aurka egin daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, hila-bete biko epean. Berraztertze errekurtsoari berariazko ebazpena eman ezean hilabeteko epean, errekurtsoa ez dela onartu ulertu beharko da.*

Leioa, 2001eko otsailaren 22a

ERANSKINA, IRAKASLEEN ZUZENDARI KARGU AKADEMIKOA SORTZEKO GOBERNU BATZARRAK HARTUTAKO ERABAKIARENA

Lehenengoa. *Irakasleen zuzendariak honako eginkizunak izango ditu:*

a) Irakasleen Lana Ikuskatzeko Zerbitzua zuzentzea.

b) Ikasturte bakoitzeko irakats eskaintzaren tramitazioaz eta onarpenaz arduratzen diren organoei laguntzea, betebeharrak betetzen direla bermatzeko. Era berean, burrengo ikasturteko irakats eskaintza eta irakats betebeharrak zehazteko, ikastegiei eman behar zaien informazioaren osagarri diren datuak bildu beharko ditu.

c) Irakasle bakoitzari emandako irakats betebeharraren betetze-mailari buruzko informazioa biltzea.

d) Sailek duten irakats potentzialari buruzko informazio kuantitatiboa osatzea.

e) Irakasle-eskaerak aztertzeako prozedura koordinatzea.

f) Gobernu Batzarrak onartutako plantila teorikoaren ereduia abian jartzeko eta eguneratzeko lanak koordinatzea.

g) Irakasleen arloan sailek duten politikaren jarraipena zehaztea.

h) Irakasleen errektoreak ematen dizkion gainerakoak.

Bigarrenena. *Irakasleen zuzendari kargurako ordainsariak eta liberazioak errektoreordetzako zuzendari karguarekin parekatzea (azken zuzendari horienak Gobernu Batzarrak unibertsitateko irakasleen karguei buruz 1998ko ekainaren 18an hartutako erabakiaren eranskinan daude zehaztuta).*

5.4. Ikuskaritza Zerbitzuko kideen jarduerari buruzko zirkularra

Zirkularra, 2001eko azaroaren 19koa, Irakasleen Errektoreordetzarena, Ikuskaritza Zerbitzuko kideek irakasleen lana ikuskatzeko jarraitu behar dituzten irizpideei buruzkoa. Irizpideok, hain zuzen, UPV/EHUko zerbitzuen ikuskaritzaren egitura eta eginkizunei buruzko arautegian (Gobernu Batzarrak 1999ko otsailaren 3an onartua) zehaztutako eskumen eta funtzioak betetzerakoan jarraitu beharrekoak dira.

Gobernu Batzarrak 1999ko otsailaren 3an hartutako erabakiaren bidez onartu egin zen UPV/EHUko Zerbitzuen Ikuskaritzaren Egitura eta Eginkizunei buruzko Arautegia.

Era berean, Errektoregoaren 1999ko otsailaren 4ko Erabakiaren bidez, Zerbitzuen Ikuskaritza osatu zen.

Bukatzeko, Gobernu Batzarrak, 2001eko otsailaren 22an hartutako erabakiaren bidez, irakasleen artean irakasleen zuzendari kargua sortzea erabaki zuen.

Manu horietan, Estatutuetako 129. eta 130. artikuluei jarraiki, zehaztuta dago, beste-ak beste, Unibertsitateak irakats betebeharrak bete egiten direla kontrolatzeko sistemak izan behar dituela. Horrela, bada, Ikuskaritza Zerbitzuak ikastegi eta sailetara bisitak egingo ditu, eta eskatutako informazio guztia eman beharko diete arduradunek Ikuskaritza Zerbitzukoiei, ordutegiei buruzkoa, irakats betebeharrei buruzkoa edo zerbitzu horri araudiaren bidez esleitu zaizkion betebeharrekin lotutako beste edozein gairi buruzkoa.

Beraz, irakasleek ikastegi eta sailetan beren lanorduetako betebeharrak zein heinean betetzen dituzten jakiteko Ikuskaritza Zerbitzukoek egingo dituzten jarduerak honakoei jarraituz egin beharko dira:

1. Irakasleen errektoreordearen edo irakasleen zuzendariaren agindupean, ikuskatzailea ikastegi edo saileko agintari akademiko gorenarengana edo, hori egon ezean, bertan dagoen agintariarengana joango da eta, identifikatu ondoren, ikastegira edo sailera joatearen arrazoia adieraziko dio, hau da: azaldu egingo dio zergatik bertaratu den egiaztatzeraz ikuskatuko duen irakasleak irakats betebeharrak (eskola-orduak, tutoretzak edo ikasleari laguntza ematekoak) zein heinean betetzen dituen, Irakats Eskaintza eta Irakats Betebeharrak zehazteko Prozedura Bateratuari (aurrerantzean Prozedura Bateratua) jarraituz dagozkion eginkizunak zein heinean betetzen dituen, alegia.

2. Aipatutakoa egiteko, ikastegi edo saileko agintari akademikoa bertaratzea eskatuko du eta harekin batera egiaztatu egingo du egun horretan zein heinean betetzen ari diren beren irakats betebeharrak ustez instalazio haietan (gela, laborategi, tailer, bulego eta abarretan) beren irakats betebeharrak betetzen egon beharko liratekeen irakasleek.

3. Ikastegi edo saileko akademi agintariak kasuan kasuko irakasleari ikuskatzailea aurkeztuko dio, eta ikuskatzaileak akta egingo du gorabeherak edo bere ikuskapenaren arabera Prozedura Bateratuan zehaztutakoarekin bat ez datozenak adierazteko.

4. Aktan honakoak zehaztu beharko ditu:

- Zein leku, egun eta ordutan egin den ikuskapena*
- Partaideen datu pertsonalak eta akademikoak*
- Jardunbide Bateratuan zehaztutakoaren eta bertan ikusi eta egiaztatutakoaren artean dagoen aldea, bai eta bestelako gorabehera batzuk ere.*
- Partaideen sinadura*

5. *Irakasleari eta lekuko izan den agintari akademikoari aktaren kopia bana emango zaie.*

6. *Ikuskariaren ustez irakasleak ez badu betetzen dagokion irakats betebeharra, Irakasleen Errektoreordetzak horren berri emango dio irakasleari eta lekuko izandako agintari akademikoari eta, era berean, alegazioak egiteko epea zehaztuko zaie, guztia azaroaren 26ko 30/1992 Legean zehaztutakoaren babesean.*

7. *Irakasleen Errektoreordetzak aurreko izapide guztiak bere esku dituenean, hala bada-gokio, diziiplina batzordeari emango dizkio, hark behar diren izapideak egin ditzan.*

Leioan, 2001eko abenduaren 3an

Irakasleen errektoreordea